

DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

► Ayuntamiento Pleno

► Akta

Acta

UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL

2013ko UZTAILAK 23 / 23 - JULIO - 2013

TOKIA / LUGAR: SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

EGUNA / FECHA: 23/07/2013

HASIERA / INICIO: 17:00 horas

BERTARATUAK / ASISTENTES:

PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):

Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi andrea

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):

1. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
 2. Alkateordea, Don Iker Oveja Sobrón jauna
 3. Alkateordea, Don Andoni Iruarizaga Amantegi jauna
 4. Alkateordea, Don Ander Gorrotxategi Legarra jauna
 5. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea
 6. Alkateordea, Don Jon Kepa Garro Mendiola garai jauna
- Don Juan Ignacio Martínez Orea jauna

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (BILDU)

Don Urdaspal Bolinaga Mallaviabarrena jauna
Doña Arrate Elkorro Zengotitabengoa andrea
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Pedro Roberto Frontaura Basterra jauna
Doña Deunorone Bizkarra Larrea andrea

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSE-EE (PSOE))

Doña Pilar Ríos Ramos andrea
Don Fernando Castillo Rodríguez jauna
Doña Idoia Agorriá Martínez andrea

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PP)

Don Juan José Gastañazatorre Urizar jauna
Don Adrian Castro Cebrian jauna

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (ARALAR)

Don Daniel Maeztu Pérez jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna

KONTU-HARTZAILE ORDEA / INTERVENTORA EN FUNCIONES

Doña Maria Pilar Velasco Pérez andrea

**UDAL ERAKUNDE AUTONOMOEK GERENTEA /
GERENTE DE LOS ORGANISMOS AUTÓNOMOS**


Don Jose Manuel Rodriguez Carballo jauna

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL

Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

IZAERA / NATURALEZA: OHIKOA / ORDINARIA

DEIALDIA / CONVOCATORIA: LEHENA / PRIMERA



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

Alkate andreak batzarrari hasiera eman ondoren, 17:00ak direnean, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabai-datzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO AKTAREN ZIRRIBORAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA, 2013KO EKAINAREN 18KOA OHIKOA.

IRAKURRI OSTEAN aurreko batzarreko akta-zirriborrea, 2013ko ekainaren 18ko ohikoa hain zuzen ere.

* Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV): 2013ko ekainaren 18ko akta. Zerbait esateko?

* Uribe Padilla andreak (Bildu): 5. eta 7. orrialdean jartzen du Deunorone Bizkarra Larreak hitz egin zuela eta Arrate Elkoro Zengotitabengoak izan zen. 13. ipintzen du Arratek hitz egin zuela eta ni izan nintzen. Hori zuzentzen denean sinatuko dugu.

* Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV): Beraz, mahai gainean utziko dugu zuzenketak egin arte.

Hortaz, 2013ko ekainaren 18ko ohiko akta mahai gainean geratzen da.

BI.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA:

* Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV): Ez dago ezer aipatzeko.

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 17:00 horas, se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

UNO.- LECTURA Y APROBACION, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR, CORRESPONDIENTE A LA ORDINARIA DE 18 DE JUNIO DE 2013.

DADA LECTURA al borrador del Acta de la sesión anterior, correspondiente a la Ordinaria de 18 de Junio de 2013.

* Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV): ¿Algo que apuntar respecto al acta del 18 de junio de 2013?


* Concejala Sra. Uribe Padilla (Bildu): En las páginas 5 y 7, consta que fue Deunorone Bizkarra Larrea quien intervino, cuando realmente la que intervino fue Arrate Elkoro Zengotitabengoak. Asimismo, en la página 13, consta que quien intervino fue Arrate, cuando lo cierto es que la intervención fue mía. Firmaremos el acta, cuando se efectúen dichas correcciones.

* Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV): Por tanto, dejaremos el acta sobre la mesa, hasta que se lleven a cabo las correcciones precisas.

Por lo tanto, queda sobre la Mesa el acta correspondiente a la sesión ordinaria de 18 de Junio de 2013.

DOS.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS:

* Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV): No queda nada que añadir.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

HIRU.- BIDEZKOA BALITZ, 03/2013 ZENBAKIDUN KREDITU ALDARAZPENA ONARTZEA. (OGASUNA, PERTSONALA ETA UDALTZAINGO BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA, 2013KO UZTAILAREN 17KOA).

Fondoen kontu-hartzaileak kreditu aldarazpena kreditu osagarri moduan aurkeztu ondoren, alegia, diruzaintzako soberakin baten bidez finantzatzeko dena, hots, 2013 urtealdiko 3. zenbakiduna, eta honako hau dioena:

TRES.- APROBACIÓN, INICIAL, SI PROCEDE, DEL EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITO Nº 03/2013. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE HACIENDA, PERSONAL Y POLICÍA MUNICIPAL DE 17 DE JULIO DE 2013).

CONFECCIONADO que ha sido por la Intervención de Fondos el expediente de modificación de crédito en la modalidad de crédito adicional, financiado con la baja de una inversión costeada vía remanente en Tesorería, señalado con el nº 3, ejercicio 2013, y que se refiere a:


2013 AURREKONTUA/PRESUPUESTO 2013

Finantzatzeko aplikazioa / Aplicación que financia:

Aplikazioa/Aplicación	Zehazpena/Descripción	Diru-kopurua/Importe
87002	Soberakina gehitzea Incorporación de remanente	393.532,85
	GUZTIRA/TOTAL	393.532,85

Jasotzen duen aplikazioa / Aplicación que recibe:

Aplikazioa/Aplicación	Zehazpena/Descripción	Diru-kopurua/Importe
60101	Matxinestartako pasabidea <i>Paso Matxinestarta</i>	61.488,00
31.5200.60101	F.J. de Zumarragako errotonda luzatzea <i>Prolongación rotonda F.J. de Zumárraga</i>	30.000,00
21.1115.22707	Partaidetza diagnostikoa <i>Diagnóstico participativo</i>	26.550,00
81.4421.22707	Gazteentzako lokalen prozesu partehartzailea <i>Proceso participativo locales jóvenes</i>	22.000,00
62201	Eguskitza eta Eguzkitzagoienako depositoetako alarma-sistema <i>Sistema de alarma en el depósito de Eguskitza y Eguzkitzagoiena</i>	5.043,00
60101	Larrinagatxu	145.042,56
41.4229.62201	Landakoko konponketa <i>Arreglos Landako</i>	51.859,13
41.4228.62201	Zabalarako konponketak <i>Arreglos Zabalarra</i>	32.190,16
41.4228.48103	Zabalarren hitzarmena handitzea <i>Ampliación convenio con Zabalarra</i>	19.360,00
	GUZTIRA/TOTAL	393.532,85



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

Beronen azterketa eta baldintzak, 10/03 Foru Arauaren 29.5 artikulua eta aurrekontua betearazteko udal araudiaren 13. oinarriak ezartzen dutena aintzat hartuta, kontu-hartzailetzako informean jasotzen dira, eta espediente hau abiarazteko oinarri dira.

Ogasun, Pertsonala eta Udaltzaingoa Batzordearen irizpena duena 2013ko uztailaren 17koa gehiengoaren botoarekin.

* Kontuhartzaile ordea **Velasco Perez andreak**: Uztailaren 17ko Ogasuna, Pertsonala eta Udaltzaingo batzordeak 3. kreditu-aldarazpen proposamenaren irizpena eman zuen osoko bilkura honetara ekartzeko. Kreditu-aldaketaren zenbateko osoa 393.490,49 eurokoa da. Finantzaketa udaltxeko diru-soberakinaren kontura egingo da eta finantzatzeko diren partidak hauexek izango dira:

- Matxisnestartako pasabidea: 61.488 euro.
- Fray Juan de Zumarragako errotondaren luzapena: 30.000 euro.
- Diagnostiko parte-hartzailea: 26.550 euro.
- Gazte lokalaren prozesu parte-hartzailea: 22.000 euro.
- Eguzkitza eta Eguzkitzagoienako ur-andelaren alarma sistema: 5.043 euro.
- Larrinagatzuko lanak: 145.000 euro.
- Landakoren konponketak: 51.859,13 euro.
- Zabalarren konponketak: 32.190,16 euro.
- Zabalarako hitzarmenaren luzapena: 19.360 euro.

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:


Cuyo análisis y condiciones, según lo dispuesto en el Artº. 29.5 de la Norma Foral 10/03 y NMEP Base 13, se hallan recogidas unas y otras en el informe de Intervención que ha dado origen a este expediente.

PREVIO dictamen mayoritariamente favorable de la Comisión Informativa de Hacienda, Personal y Policía Municipal, en sesión celebrada el 17 de Julio de 2013.

* Interventora en funciones **Sra. Velasco Pérez**: La comisión de Hacienda, Personal y Policía Municipal de 17 de julio efectuó su dictamen sobre la tercera propuesta de modificación de crédito, para su posterior elevación al pleno. La modificación de crédito asciende a un total de 393.490,49 euros, cuya financiación correrá a cargo del remanente municipal, para la financiación de la siguientes partidas:

- Paso de Matxisnestarta: 61.488 euros.
- Prolongación de la rotonda de Fray Juan de Zumarraga: 30.000 euros.
- Diagnóstico participativo: 26.550 euros.
- Proceso participativo sobre el local de jóvenes: 22.000 euros.
- Sistema de alarma del depósito de agua de Eguzkitza y Eguzkitzagoiena: 5.043 euros.
- Obras de Larrinagatzu: 145.000 euros.
- Reparaciones en Landako: 51.859,13 euros.
- Reparaciones en Zabalarra: 32.190,16 euros.
- Prórroga del convenio de Zabalarra: 19.360 euros.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Galdera tekniko bat daukagu: Estatu mailan aurrekontuen egonkortasunaren legea ezarri zen eta, duela gutxi, ekainaren bukaeran, udaleko Kontu-hartzaileak kontu orokorraren txostena aurkeztu digu, eta bertan, zorraren atalean, jartzen du Durangoko Udalak 7 milioi baino gehiagoko zorra duela. Horrexegatik, gure galdera da ea posible den soberakinak bideratzea gaur ekartzen diren gastuetarako eta, baita ere, ea udaleko kontu-hartzaileak txostenik egin duen horren inguruan.

* **Kontuhartzailea Velasco Perez andreak**: Espedientean nik egindako informe bat dago, bertan agertzen da posible dela. Zuk aipatu duzun lege organikoak esaten du, diru-soberakinak egonez gero, maileguak kentzeko izan behar zela. Gero arau foral bat egon da eta bertan aukera bat zabaltzen zen, eta erregelamendu bat ere egon da, eta honek esaten du portzentajearen arabera aukera egon daitekeela gaur egin behar duguna egiteko. Dena den, txostenean agertzen da azalpen guztia.

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Gu abstenitu egingo gara ikusten dugulako bertan jasota dauden gastuak beharrezkoak direla. Hau esanda, beste kreditu-aldarazpenetan erabili izan dugun argumentazioa erabiliko dugu, alegia, aurrekontu barik gaude 2013. urtean, 2012an egon ginen bezalaxe.

Kreditu erretentzioak direla-eta, askotan esan dugu aurreko urteotan onartutako diru-kopuruak dauz-kagula oraindik egin ez diren proiektuak egiteko. Gure ustez, proiektu horiek ez dira egin behar, azken baten, beste lehentasun batzuk daudelako. Honen inguruko eztabaida botatzen dugu faltan, hau da, zeintzuk diren lehentasunak. Ez dugu uste lehentasun horiek kreditu-aldarazpenen bitartez ezarri behar direnik.

Lehenengo eta behin, eztabaida politiko bat egon behar da udaletxean eta, gero, eztabaida hori gizarteratu eta herritarrei kontsultatu behar diegu euren lehentasunak zeintzuk diren jakiteko, eta horren arabera adostuko ditugu inbertsioak eta gastuak.


* **Concejal Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Tene-mos una pregunta técnica, en cuanto a la Ley de Estabilidad Presupuestaria puesta en marcha recientemente —concretamente a finales de junio— en el Estado español, ya que la señora Interventora municipal en la presentación del informe de las cuentas generales, en lo que a la deuda se refiere, señala la existencia por parte del Ayuntamiento de Durango de más de 7 millones de deuda. Ante lo cual, nos preguntamos si es posible utilizar los remanentes para los gastos que se nos presentan; asimismo, quisiéramos saber si existe algún informe por parte del Área de Intervención Municipal.

* **Interventora Sra. Velasco Perez**: El expediente recoge un informe elaborado por mí misma, donde se da por válida tal posibilidad. La ley orgánica a la que aludes lo que establece es que en caso de que exista un remanente, éste debe ser utilizado para la liquidación de préstamos. Tras ella, se ha establecido una norma foral, junto con un reglamento, en el que, a tenor de ciertos porcentajes, se abre la posibilidad de efectuar las modificaciones que hoy se presentan. Sea como fuere, disponen de una explicación exhaustiva en el informe.

* **Concejal Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Nosotros nos abstendremos, ya que, por un lado, vemos que los gastos incluidos en dicha modificación son gastos necesarios. Pero, asimismo, ateniéndome a la argumentación esgrimida en otras modificaciones de crédito, debemos recordar que en 2013, al igual que sucedió durante el 2012, nos encontramos aún sin presupuestos.

En cuanto a las retenciones de crédito, tal y como hemos señalado en muchas ocasiones, contamos todavía con ciertas cuantías aprobadas en años anteriores para llevar a cabo proyectos que no han sido desarrollados y que nosotros pensamos que no deberían llevarse a cabo, ya que en este momento existen otras prioridades. Ante lo cual, echamos en falta un debate para la determinación de nuestras prioridades, puesto que no creemos que las prioridades deban establecerse a golpe de modificaciones de crédito.

En primer lugar, debe impulsarse un debate político en el propio Ayuntamiento, para más tarde poder consultarlo a la sociedad y a la ciudadanía, y conocer así sus prioridades, a fin de saber a dónde dirigir las inversiones y gastos.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

* **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE):** Alde bozkatuko dugu guk. Kreditu-aldarazpen honetan jaso diren kontu-sail edo proiektu gehienak aspaldiko eskaerak ditugu, hala nola Landako ikastetxeko frontoiaren estalkia, hiri-antolamenduko plan orokor berrirako diagnostiko parte-hartzailea edo Larrinagatzuko luizia konpontzeko lanak, premia bizi-koak, zalantzarik gabe. Hori bai, argi esan nahi dugu, gure ustez, berandu datorrela aldarazpen hau; aspaldi behar zuen egina. Nolanahi ere, berriz ere diot: ezinbesteko kontu-sailak dira.

* **Uribe Padilla andreak (Bildu):** 2013ko uztailaren 23an gaude, Osoko Bilkura honetara ez dira 2013ko aurrekontuak aurkeztu eta, jakinik abuztuan ez dagoela osoko bilkurarik, gure galdera hau da: Noiz aurkeztuko dira aurrekontuak? Lotsagarria da Durango bezalako herri batek aurrekonturik ez izatea. Gobernu Taldearen beste utzikeria argi baten aurrean gaude.

Oraingo honetan ia 400.000 euroko kreditu-aldarazpen bat planteatzen zaigu, horretarako ere arau foralak zer esaten duen itzaroten egon behar izan gara. Orain soberakinarekin finantzatu nahi dira kreditu-aldarazpen hauek. Gure ustez, badaude beharrezkoak diren zenbait kontu, badaude beste lehentasun batzuk ere gaurko osoko bilkurara ekarri ez direnak.

Hori dela eta, beste behin eskatzen diogu Gobernu Taldeari soberakinetan dauden diru-kopuruak gaur egungo lehentasun eta proiektuetara bideratzeko. Benetako arazoa aurrekontu-eza da.

* **5. Alkate Ordea Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV):** Gure aldeko bozka emango diogu kreditu-aldarazpenari, izan ere, uste dugulako berarekin aurrera eramango diren proiektuak eta lanak beharrezkoak direlako Durangorentzat. Hori da gure helmuga: Durango hobetu eta Durango lan egitea.

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar):** Guk ez dugu zalantzan jartzen beharrezkoak direla proposatutako proiektuak, baizik eta proposatzen diren proiektuetan gastatuz gero, ziurrenik, ez da dirurik egongo

* Concejala **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE):** Adelantamos nuestro voto afirmativo. La mayoría de las partidas o proyectos que aparecen en esta modificación de crédito llevamos tiempo reivindicándolas, como el caso de la cubierta del frontón del colegio Landako, el diagnóstico participativo para el nuevo plan general de ordenación urbana, o la urgencia que tiene el desprendimiento de Larrinagatzu. Lo que sí queremos dejar claro es que creemos que se trae tarde y que hace tiempo que se tenía que haber realizado esta modificación de crédito. Insistimos en que son partidas necesarias.


* Concejala **Sra. Uribe Padilla (Bildu):** Nos hallamos a 23 de julio de 2013, y todavía no se han presentado ante este Pleno Municipal los presupuestos de 2013. Teniendo en cuenta que en agosto no hay pleno, nos preguntamos cuándo se presentarán los presupuestos. Resulta vergonzoso que un pueblo como Durango no cuente con unos presupuestos. Estamos ante un nuevo acto de dejadez por parte del Equipo de Gobierno.

Ahora se nos plantea una modificación de crédito de casi 400.000 euros, y también para ello hemos tenido que esperar a conocer qué decía al respecto la norma foral. Se pretenden financiar estas modificaciones de crédito mediante el remanente. Pero nosotros consideramos que existen asuntos más apremiantes y otras prioridades que no han sido presentadas en el pleno de hoy.

Por ello, volvemos a solicitar al Equipo de Gobierno que utilice los remanentes existentes para el desarrollo de las prioridades y proyectos actuales. Pero el verdadero problema radica en la falta de presupuestos.

* **5ª Tnte. de Alcalde Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV):** Votaremos a favor de la modificación de crédito, ya que consideramos que los proyectos y obras que se desarrollarán gracias a esta modificación resultan verdaderamente imprescindibles para Durango. Y precisamente en eso consiste nuestro objetivo, en mejorar Durango y trabajar en su favor.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar):** No dudamos de la necesidad de los proyectos que nos proponen, pero sí pensamos que si se gastamos el dinero en dichos proyectos, proba-



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

beste proiektu batzuetarako. Guk ez dugu esaten Frai Juan Zumarragako errotonda luzatzea beharrezkoa ez denik, ez dakigu lehentasunezkoa den ala ez; baina jakin badakigu Durangon euria egiten duenean kale batzuetan oraindik arratoiak irteten direla, estolderia aldatu barik dagoelako, oso zaharritua dagoelako eta beharrezkoa delako estolderia hori berritzea. Nik balantza batean jarri behar harko banu zein den lehentasunezkoa, argi izango nuke estolderia izango zela lehenengo.

Eta hori da Aralarrek ekarri nahi duen eztabaida eta planteatzen duena. Lehentasunak ezartzen ari gara kreditu-aldarazpenen bitartez, eta hori ez da eman behar den eztabaida, besteak beste, ez delako eztabaida.

* **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE):** Aralarreko ordezkariari esan nahi diot gure ustez biribilgune hori badela lehentasunezkoa; izan ere, 2010. urte-tik ari gara eskaera hori egiten; eta saneamendusarearena ere lehentasuna da, noski.

* **Elkoro Zengotitabengoa andreak (Bildu):** Planteatzen diren proiektuak beharrezkoak dira baina kontuan izan behar dugu zeintzuk diren lehentasunak.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Eraitza hauxe:

- Aldeko botoak: HAMAIRU, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 3 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 2 Alderdi Popularra.
- Kontrako botoak: BAT ERE EZ.
- Abstentzioak: ZORTZI, 6 Bildu eta 2 Aralar.

Hortaz,

UDALEKO OSO BILKURAK, 10/03 Foru Arauaren 34. artikulua ezartzen duenaren arabera, gehiengoaren botoarekin, onartu egiten du:

blemente no dispongamos de suficiente dinero para otros proyectos. No decimos que la prolongación de la rotonda de Frai Juan de Zumarraga no sea necesaria; desconocemos su grado de prioridad; lo que sí sabemos es que cuando llueve en Durango, hoy por hoy todavía salen ratas en algunas calles, debido a que todavía no ha sido cambiado un sistema alcantarillado que ha quedado totalmente obsoleto. Si tuviera que medir en una balanza el nivel de prioridad de un proyecto y otro, evidentemente la balanza se inclinaría por la obra de alcantarillado.

Ese es el debate que Aralar considera necesario y que pretende plantear. Establecemos las prioridades a golpe de modificaciones de crédito, pero ese no es el tema a debatir, entre otras razones porque ni siquiera supone un debate.

* Concejala **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE):** Quiero decirle al representante de Aralar que para nosotros esta rotonda sí es una prioridad, de hecho llevamos desde el 2010 solicitando que se lleve a cabo. Evidentemente el saneamiento también lo es.


* Concejala **Sra. Elkoro Zengotitabengoa (Bildu):** Creemos que los proyectos que se plantean sí que resultan necesarios, pero debemos tener en cuenta en todo momento las prioridades.

Finalizado el debate, la Presidenta somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: TRECE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 3 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 2 del Partido Popular.
- Votos en contra: NINGUNO.
- Abstenciones: OCHO, 6 de Bildu y 2 de Aralar.

En su vista,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, al amparo de lo dispuesto en el Artº. 34 de la Norma Foral 10/03, por mayoría, acuerda:



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

1. **03/2013** zk.dun kreditu-aldarazpenaren espedientea **HASIERA BATEAN** onartzea, gorago jasotako testua bihurtzen du.
2. Akordioa **jendaurrean erakustea HAMABOST (15) EGUNEZ**, honetarako iragarki bat jarriko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan.
3. Espediente behin betiko onartuko da jendaurreko epe barruan ez bada erreklamaziorik aurkezten; kontrakoa gertatuko balitz, osoko bilkurak hilabeteko (1) epea izango du erreklamazioak ebazteko (aipatutako lege testuaren 150. artikulua.)

LAU.- BIDEZKOA BALITZ, DURANGO KIROLAK 02/13 ZENBAKIDUN KREDITU ALDARAZPENA ONARTZEA. (DURANGO KIROLAKO GOBERNU BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2013KO UZTAILAREN 9KOA).

“Durango Kirolak” Erakunde Autonomaren Gobernu Batzaren, 2013ko uztailaren 9ko, irizpenaren berri ematen da:

“2013ko Uztailaren 9 datako, Durango Kirolaken Gobernu-Batzordean, deliberamenduen ondoren, Durango Kirolak-en instalazioetako autobabes eta irisgarritasun-planak egiteko kreditu-prestaketa onartzeko beharra bozketara igozten da.

Emanda ekiten zaio bozketari, hurrengo emaitzarekin:

- **Botoak alde:** EAJ-EAJ (4); PP (1).
- **Abstentzioak:** PSE-EE (2); Aralar (1); Bildu (1).

1. Aprobar **INICIALMENTE** el expediente nº **03/2013** de Modificación de Crédito, conforme al detalle anteriormente transcrito.
2. Someterlo a **información pública** por espacio de **QUINCE (15) DIAS**, mediante su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia y Tablón de Edictos de la Casa Consistorial.
3. El expediente se considerará definitivamente aprobado si durante el citado plazo no se hubiesen presentado reclamaciones; en caso contrario, el Pleno dispondrá de un plazo de un (1) mes para resolverlo (Artº. 150 del mentado texto legal de H.L.)


CUATRO.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITO Nº 02/13 DE DURANGO KIROLAK. (DICTAMINADO POR LA JUNTA DE GOBIERNO DE DURANGO KIROLAK DE 9 DE JULIO DE 2013).

DADA LECTURA al dictamen emitido por la Junta de Gobierno de Durango Kirolak en sesión de 9 de Julio de 2013, del tenor siguiente:

“En Junta de Gobierno de Durango Kirolak, de fecha 9 de Julio de 2013, tras deliberación, se eleva a votación la necesidad de aprobar la Habilitación de crédito para realizar los Planes de autoprotección y accesibilidad en las instalaciones de Durango Kirolak.

Se procede a la votación, con el siguiente resultado:

- **Votos a favor:** EAJ-PNV (4); PP (1).
- **Abstenciones:** PSE-EE (2); Aralar (1); Bildu (1).



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

Gobernu-Batzordeak, Durango Kirolak-en instalazioetako autobabes eta irisgarritasun-planak egiteko kreditu-prestaketaren proposamena igotzen du Korporazioaren Osoko Bilkurara."

La Junta de Gobierno, eleva al Pleno de la Corporación propuesta de Habilitación de crédito para realizar los Planes de autoprotección y accesibilidad en las instalaciones de Durango Kirolak."

2013 AURREKONTUA/PRESUPUESTO 2013

Finantzatzen den aplikazioa / Aplicación que financia:

Aplikazioa/Aplicación	Zehazpena/Descripción	Diru-kopurua/Importe
87002	Soberakina gehitzea Incorporación de remanente	150.000,00
	GUZTIRA/TOTAL	150.000,00

Jasotzen duen aplikazioa / Aplicación que recibe:

Aplikazioa/Aplicación	Zehazpena/Descripción	Diru-kopurua/Importe
41.4517.62203	Durango Kirolak eraikinak Edificios Durango Kirolak	150.000,00
	GUZTIRA/TOTAL	150.000,00

* Udal Erakunde Autonomek Gerentea **Rodríguez Carballo jaunak**: Uztailaren 9an Durango Kirolak-eko gobernu batzordeak 2. kreditu-aldarazpenen aldeko irizpena eman zuen osoko bilkura honetara ekartzeko. Kreditu aldaketaren zenbatekoa 150.000 eurokoa da. Finantzaketa Durangoko Kirolak-eko soberakinaren kontura egingo da. Alde batetik kirol instalazioetako autobabesa izango da: 99.486,69 euro eta bestetik irisgarritasun plana aurrera eramatea: 50.513,31 euro.


EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Kasu honetan lehengo puntuan erabilitako argumentazio bera erabiltzen dugu abstentzioa bozkatzeko. Ez dugu zalantzan jartzen aurkeztu diguten eraikuntzen autobabesarako obrak eta irisgarritasun lanak ere guztiz beharrezkoak direla, baina pentsatzen dugu irizpideak eta lehentasunak ezartzeko beste era batzuk daudela. Gainera Durango Kirolak-ekin urtean zehar beti izaten ditugu bizpahiru kreditu-al-

* Gerente de los Organismos Autónomos **Sr. Rodríguez Carballo**: El 9 de julio, la Junta de Gobierno de Durango Kirolak dio su dictamen a favor de la segunda modificación de crédito, para su posterior elevación al pleno. La modificación asciende a un total de 150.000 euros, cuya financiación correrá a cargo del remanente de Durango Kirolak, y será utilizada para la instalación de un sistema de autoprotección para las instalaciones deportivas, a lo que se destinarán 99.486,69 euros, y, por otro lado, para el desarrollo del plan de accesibilidad, con 50.513,31 euros.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: En este caso volveremos a abstenernos, basándonos en la misma argumentación esgrimida en punto anterior. No dudamos de la necesidad de las obras para la instalación de sistema de autoprotección en los edificios, tampoco dudamos de que sea imprescindible llevar a cabo ciertos trabajos de mejora de la accesibilidad, pero consideramos que existen otras formas de establecer criterios y prioridades. Además, el hecho es que en Durango



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

darazpenak mota honetako obrak onartzeko eta eskatzen dugu bere osotasunean izatea eztabaida hori.

* **Gastañazatorre Urizar jaunak (PP):** Aldarazpenaren alde bozkatuko dugu, irizpena eratu duen erakunde autonomoan ere baiezkoa eman baikenion. Besterik ez.

* **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE):** Argi dugu legeak ezartzen dituela bete beharreko neurri guztiak, bai segurtasunaren arloan bai irisgarritasunaren arloan; hala, neurri horiek ezinbestean bete behar ditugu. Egia da, nolana ere, legeak epe malguagoak ematen dituela eta hori guztia lasaitasun handiagoz ere egin genezakeela. Erakunde autonomo horrek premia handiak ditu, eta haren instalazio batzuek, udako igerilekuek kasu, eskasia ugari dituzte aspalditik. Kreditu-aldarazpen horren alde egingo dugu, erreparazioak ere badiugun arren.

* **Uribe Padilla andreak (Bildu):** Lehenengo eta behin eskerrik asko Jose Manuel Rodríguez gertuteari euskaraz aritu izanagatik.

Harrituta gelditzen gara gure eraikinak dituzten gabeziak ikusita, oraingo honetan 150.000 eurotako kreditu-aldarazpena planteatzen zaigu Durango Kirolak-eko eraikinetan autoprotekzio eta irisgarritasun planak ezartzeko. Planteatzen diren hobekuntzak ez diogu beharrezkoak ez direnik, baina lotsagarria iruditzen zaigu diru-kopuru bat eskatzea eta horren arabera modifikazioak egitea.

Onartezina da eraikin hauek irisgarritasun planik ez dutela ikustea. Planteatzen diren gauza asko mantenua dira, eta ez dugu beharrezkoa ikusten kreditu-aldarazpen bat badaudelako beste lehentasun batzuk. Eraikin batzuk oso urte gutxi dituzte eta hauek ere ez omen dituzte eskatzen diren esijentziak betetzen. EH Bildutik eskatzen duguna da eraikin hauen erabilera publikoa bultzatzea, alegia, dirutza bat gastatu ostean erabilera bermatzea.

Kirolak siempre surgen dos o tres modificación de crédito para la aprobación de esta clase de obras, por lo que lo que solicitamos es un debate en su conjunto.


* **Concejal Sr. Gastañazatorre Urizar (PP):** Solamente anunciar nuestro voto a favor de la misma forma que votamos en el organismo autónomo de donde proviene el dictamen.

* **Concejala Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE):** Tenemos claro que es la ley quien establece todas estas medidas que se deben llevar a cabo tanto en el tema de la seguridad como en el de la accesibilidad, y no queda otra que llevarlas a cabo. Sí que creemos que hay unos tiempos que la ley permite y que todo esto se podría hacer con un mayor margen de tiempo. Es un organismo autónomo que tiene muchas necesidades y hay instalaciones como son las piscinas de verano que llevan muchos años con muchas deficiencias. Vamos a apoyar esta modificación de crédito; sin embargo, nosotros tenemos nuestra reserva respecto a ella.

* **Concejala Sra. Uribe Padilla (Bildu):** En primer lugar, queremos agradecer a Jose Manuel Rodríguez el que haya efectuado su intervención en euskera.

En cuanto al tema que nos ocupa, estamos perplejos ante las carencias de nuestros edificios, y es que ahora se nos plantea una modificación de crédito de 150.000 euros, para la implantación de planes de movilidad y autoprotección en los edificios de Durango Kirolak. No dudamos de la necesidad de esas mejoras, pero consideramos totalmente vergonzoso que primeramente se solicite cierta suma de dinero, para después plantear las modificaciones en virtud de esa cuantía.

Resulta inaceptable que estos edificios no cuenten con un plan de accesibilidad. Muchas de las mejoras que se plantean corresponden al área del mantenimiento, y no vemos necesario que se realice una modificación de crédito para ello, porque existen otras prioridades. Y es que algunos edificios tienen muy pocos años, pero ni siquiera esos edificios cumplen las condiciones exigidas. Lo que solicitamos desde EH Bildu es que se impulse la utilidad pública de estos edificios, es decir, que si se gasta un dineral en ellos, también se garantice su uso.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

* 5. Alkate Ordea Diaz Basterra andreak (**EAJ/PNV**): Aldeko botoa aurreratzen dugu, dena den, gogoratu behar da eraikuntza batzuk legealdaketa baino lehen eginda daudela, eta horregatik beharrezkoa da aldaketak egitea.

* Uribe Padilla andreak (Bildu): Badaude lege aldaketa baino arinago egindako eraikinak, baina beste batzuk orain dela gutxi egindakoak dira. Abstenitu egingo gara.

Eztabaida amaitu ondoren, presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Eraitza haxe:

- Aldeko botoak: HAMAIRU, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 3 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 2 Alderdi Popularra.
- Kontrako botoak: BAT ERE EZ.
- Abstentzioak: ZORTZI, 6 Bildu eta 2 Aralar.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, 10/03 Foru Arauaren 34. artikulua ezartzen duenaren arabera, gehiengoaren botoekin, haxe erabaki du:

1. "Durango Kirolak" erakunde autonomoaren **02/2013** zk.dun kreditu-aldarazpenaren espediente **HASIERA BATEAN** onartzea, betiere, goian zehazten diren aplikazio eta zenbatekoekin.
2. Akordioa **jendaurrean erakustea HAMABOST (15) EGUNEZ**, honetarako iragarki bat jarriko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan.
3. Espediente behin betiko onartuko da jendaurreko epe barruan ez bada erreklamaziorik aurkeztzen; kontrakoa

* 5ª Tnte. de Alcalde Sra. Diaz Basterra (**EAJ/PNV**): Anunciamos nuestro voto a favor. De todas formas, debemos recordar que algunos edificios fueron construidos antes de que la ley se modificara, y de ahí proviene la necesidad de ciertas obras de acondicionamiento.

* Concejala Sra. Uribe Padilla (Bildu): Es cierto que algunos edificios fueron construidos antes de la modificación de la ley, pero, en otros casos, se tratan de edificios recién edificadas. Por lo tanto, nos abstendremos.


Finalizado el debate, la Presidenta somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: TRECE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 3 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 2 del Partido Popular.
- Votos en contra: NINGUNO.
- Abstenciones: OCHO, 6 de Bildu y 2 de Aralar.

En su vista,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, al amparo de lo dispuesto en el Artº. 34 de la Norma Foral 10/03, por mayoría, acuerda:

1. Aprobar **INICIALMENTE** el expediente nº **02/2013** de Modificación de Crédito, correspondiente al Organismo Autónomo "Durango Kirolak", con las aplicaciones y cuantías descritas con anterioridad.
2. Someterlo a **información pública** por espacio de **QUINCE (15) DIAS**, mediante su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia y Tablón de Edictos de la Casa Consistorial.
3. El expediente se considerará definitivamente aprobado si durante el citado plazo no se hubiesen presentado



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

gertatuko balitz, osoko bilkurak hilabeteko (1) epea izango du erreklamazioak ebazteko (aipatutako lege testuaren 150. artikulua.)

reclamaciones; en caso contrario, el Pleno dispondrá de un plazo de un (1) mes para resolverlo (Artº. 150 del mentado texto legal de H.L.).

BOST.- BIDEZKOA BALITZ, 2013-2014 IKASTURTERAKO PREZIO PUBLIKOAK ALDATZEKO PROPOSAMENA ONARTZEA. (DURANGOKO UDAL EUSKALTEGIKO GOBERNU BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA, 2013KO UZTAILAREN 9KOA).

CINCO.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE LOS PRECIOS PÚBLICOS PARA EL CURSO 2013-2014. (DICTAMINADO POR LA JUNTA DE GOBIERNO DE DURANGOKO UDAL EUSKALTEGIA DE 9 DE JULIO DE 2013).

Durangoko Udal Euskaltegiiko Gobernu Batzordearen 2013ko uztailaren 9ko irizpenaren berri ematen da:


Dada lectura al dictamen emitido por la Junta de Gobierno de Durangoko Udal Euskaltegi en sesión de 9 de Julio de 2013, del tenor siguiente:

"DURANGOkoko Udal Euskaltegia Erakunde Autonomoaren Zuzendaritza Batzarrean, 2013ko uztailaren 9an egindako batzarrean, 2013-2014 ikasturterako prezio publikoak eta hobariak (ikus eranskina) onartu zituen, Jon Kepa Garro Mendiolagarai (EAJ), Goiztidi Diaz Basterra (EAJ), Iker Oceja Sobrón (EAJ), Juan Ignacio Martinez Orea (EAJ), Idoia Agorria Martinez (PSE-EE), Pilar Rios Ramos (PSE-EE) eta Adrian Castro Cebrián (PP) batzarkideen aldeko botoekin eta Urdaspal Bolinaga Mallabiabarrena (BILDU) eta Iker Urkiza Quilez (ARALAR) batzarkideen abstentzioarekin."

"La Junta de Gobierno del Organismo Autónomo DURANGOkoko Udal Euskaltegia, en reunión celebrada el día nueve de julio de 2013 y con los votos favorables de los miembros de la misma Jon Kepa Garro Mendiolagarai (EAJ), Goiztidi Diaz Basterra (EAJ), Iker Oceja Sobrón (EAJ), Juan Ignacio Martinez Orea (EAJ), Idoia Agorria Martinez (PSE-EE), Pilar Rios Ramos (PSE-EE) y Adrian Castro Cebrián (PP) y las abstenciones de Urdaspal Bolinaga Mallabiabarrena (BILDU) y Iker Urkiza Quilez (ARALAR), aprobó los precios públicos y las bonificaciones (ver anexo) para el curso 2013-2014."

* Udal Erakunde Autonomoek Gerentea **Rodríguez Carballo jaunak**: Durangoko udal Euskaltegia erakunde autonomoaren zuzendaritza batzarrean, 2013ko uztailaren 9an egindako batzarrean, 2013/2014 ikasturterako prezio publikoak eta hobariak onartu zituen. Aldaketa garrantzitsuenak hauek dira: ikastorduren prezioa 1,13tik 1,16ra pasatuko da. Bestetik, bonifikazioaren arloan, familia berean kide bat baino gehiago dagoenean, prezioa ez da aldatuko. Familia ugarien kasuan hobariak aldatzeko eta hobetzeko proposamena egin nahi da. Eta hirugarrena, langabezian dauden ikasleen kasuan errentaren arabera bonifikazio berezi bat izango dute.

* Gerente de los Organismos Autónomos **Sr. Rodríguez Carballo**: El Órgano Directivo del organismo autónomo Durangoko Udal Euskaltegia, en su reunión del 9 de julio de 2013, aprobó los precios públicos y las bonificaciones para el curso 2013/2014, efectuándose ciertos cambios, entre los que destacan el paso de un 1,13 a un 1,16 en el precio de la hora lectiva, y el mantenimiento en el ámbito de las bonificaciones del mismo precio, en el caso de que estén inscritos más de un miembro de una misma familia. En el caso de las familias numerosas, se propone una modificación para la mejora de las bonificaciones. Finalmente, los alumnos que se encuentren en situación de desempleo, dispondrán de una bonificación especial conforme a su renta.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Kontuan izanik igoera bat proposatzen dela, galdera bat daukagu: noiz igo ziren euskaltegiako prezio publikoak azkeneko aldiz? Edo, beste modu baten esanda: zenbat urtez egon da izoztuta matrikula-prezioa?

* **Udal Erakunde Autonomoek Gerentea Rodriguez Carballo jaunak**: Ez dut gogoratzen ziur, baina gutxienez lau urte.

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Beraz, krisi garaian egonik, prezio publiko batzuen igoera eskatzen da. Gu ez gaude prezio publikoen igoeraren kontra, baina beti esaten dugun moduan, jakin behar dugu zein den estaldura maila, hau da, zerbitzu publiko horrek nolako kostua suposatzen duen, eta horren arabera jakingo dugu zer nahi dugun kobratu eta zergatik, alegia, nolako estaldura maila lortu nahi dugun.

Agerian geratzen da, berriro ere, ez dela inongo irizpiderik egon igoerak aplikatzerako orduan. Krisirik ez zegoenean eta ekonomia gora egiten zenean, ordenantza fiskalak eta prezio publikoak inongo irizpide barik izozten ziren bai. Eta krisia gogor ari denean jotzen aprobetxatzen dugu prezioak igotzeko.

Ez gaude ados irizpide horrekin. Iruditzen zaigu populismo politika baten ondorioak pairatzen ari garela momentu honetan, guk ez dugu populismo hori bultzatu, gu ez gara erantzule eta ez dugu populismo hori babestuko.

* **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Eskertzeakoa da langabezian dauden pertsonentzako laguntzen gainean egin dugun ekarpena, hasierako proposamena oso bestelakoa baitzen. Honako hau askoz hobea iruditzen zaigu: matrikularen % 60 langabeei eta % 70 diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen. Ados gaude, halaber, familia ugariarentzat ezarritako hobariekin.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* **Concejal Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Lo que aquí se propone es una subida, ante lo cual quisiéramos saber cuándo se efectuó la última subida de los precios públicos del euskaltegi, o dicho de otra manera, durante cuántos años ha estado congelado el precio de la matrícula.


* **Gerente de los Organismos Autónomos Sr. Rodriguez Carballo**: No lo recuerdo con certeza, pero, por lo menos, cuatro años.

* **Concejal Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Por lo tanto, aun estando en situación de crisis, se apuesta por la subida de unos precios públicos. Nosotros no estamos en contra de la subida de los precios públicos, pero tal y como decimos siempre, primeramente debemos conocer su nivel de cobertura, es decir, debemos saber qué gasto supone ese servicio público, para que, a partir de ahí, podamos saber qué es lo que queremos cobrar y por qué, esto es, qué nivel de cobertura queremos lograr.

Queda en evidencia nuevamente que no se han ceñido a ningún criterio a la hora de aplicar esas subidas. Cuando aún no estábamos en crisis y la economía crecía, las ordenanzas fiscales y los precios públicos se congelaban sin ningún criterio. Y resulta que ahora aprovechamos el momento en el que con más fuerza azota la crisis, para efectuar una subida de los precios.

No compartimos ese criterio. Consideramos que lo que estamos sufriendo en este momento es la consecuencia de una política populista que nosotros no hemos promovido y que, por lo tanto, no teniendo ninguna responsabilidad al respecto, no la vamos a amparar.

* **Concejala Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Nosotros vamos a agradecer la aportación que hemos hecho respecto a ayudas para personas desempleadas, ya que en un inicio había una propuesta totalmente diferente. Esta nos parece mucho mejor, un 60% de la matrícula para personas desempleadas y un 70% para las personas perceptoras de RGI. También estamos de acuerdo con las bonificaciones a familias numerosas.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

* **Bolinaga Mallabiabarrena jaunak (Bildu)**: Guk uste dugu Udal Euskaltegiaren funtzioa herria euskalduntzea dela, eta horretarako oso tresna garrantzitsua da, beraz, ahalik eta medio eta erraztasun gehien jarri behar dira Durango euskalduntzeko.

Ondo ikusten dugu planteatutako hobariak baina prezioak igotzea ez dugu ondo ikusten herria euskaldundu nahi badugu. Prezioaren igotzea gehiago doa estaldura maila emateko eta ez hainbeste zerbitzu hobeago bat emateko, horregatik, abstenitu egingo gara puntu honetan.

* 5. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Aldeko bozka emango diogu. Guk ez dugu inolako arazorik izan Aralarrek eta Alderdi Sozialistak planteatutako hobariak aplikatzeko.

Ondo dago Euskaltegiaren helburua zein izan beharko litzatekeen azaltzea baina faltan bota izan dugu Bilduren ekarpenaren bat.

* **Bolinaga Mallabiabarrena jaunak (Bildu)**: EAJko Bozeramaileari erantzunez, hauxe esan behar dugu: Ikusita planteatutako hobariak eta bonifikazioak egokiak zirela ez dugu ezer gehiago gehitu. Proposamenak egin, egin ditugu, adibidez atzerritarren inguruan: erraztasunak ematea planteatzen genuen, eta hau udal euskaltegian ere badakite, batzordean aipatu izan dugulako.

Eztabaida amaitu ondoren, presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Eraitza hauxe:

- Aldeko botoak: HAMAIRU, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 3 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 2 Alderdi Popularra.
- Kontrako botoak: BAT ERE EZ.
- Abstentzioak: ZORTZI, 6 Bildu eta 2 Aralar.

Hortaz,

* Concejál **Sr. Bolinaga Mallabiabarrena (Bildu)**: La función del Euskaltegi municipal consiste en euskaldunizar nuestro municipio; resulta una herramienta muy importante para este fin, por lo que debe ofrecérsele todos los medios posibles y todas las facilidades para que pueda cumplir su objetivo de euskaldunización de nuestro municipio.

En cuanto a las bonificaciones que se plantean, las consideramos adecuadas, no así la subida de los precios, teniendo en cuenta su objetivo de euskaldunización. La subida de los precios responde más al hecho de querer cubrir el nivel de cobertura que a la intención de ofrecer un mejor servicio, por lo que nosotros nos abstendremos en este punto.

* 5ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Nosotros votaremos a favor. No hemos tenido ningún problema en aplicar las bonificaciones planteadas por Aralar y el Partido Socialista.


En lo que respecta a Bildu, más allá de explicar el objetivo del Euskaltegi, lo cual siempre está bien, lo que sí hemos echado en falta es alguna aportación por su parte.

* Concejál **Sr. Bolinaga Mallabiabarrena (Bildu)**: En respuesta a la Portavoz del PNV, dado que considerábamos adecuadas las bonificaciones y deducciones planteadas, no hemos querido añadir nada más. Sea como fuere, sí que hemos hecho propuestas, como por ejemplo en el tema de los extranjeros, para los que planteábamos ofrecer facilidades. Y eso lo saben también en el euskaltegi municipal, ya que lo hemos venido planteando en la comisión.

Finalizado el debate, la Presidenta somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: TRECE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 3 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 2 del Partido Popular.
- Votos en contra: NINGUNO.
- Abstenciones: OCHO, 6 de Bildu y 2 de Aralar.

En su vista,



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, onartu egiten du:

Lehenengoa.- Durangoko Udal Euskaltegiko 2013-2014 ikasturterako Prezio Publikoak **ALDATZEKO** onestea, zehetasun hauek aintzat hartuta:

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, acuerda:

Primero.- Aprobar la **MODIFICACIÓN** de los Precios Públicos para el Curso 2013-2014 del Durangoko Udal Euskaltegia, según el siguiente detalle:

TARIFEN ERANSKINA

Klase presentzial ordu bakoitzeko prezioa: **1,16 €.**

Autoikasketako ordu bakoitzeko prezioa: **1,42 €.**

Bonifikazioak


0. Prezio publiko honetako hobariez baliatzeko eskubidea izango dute Durangon eta hitzartutako herrietan (Abadiño eta Iurreta) erroldatuta dauden ikasleek.
1. Familia ugarietako kide diren ikasleek, ondorengo taulan azaltzen diren hobariez baliatzeko eskubidea izango dute:

Hobarien taula:

Familia ugari mota	Hobaria %tan
Berezia	
Familia ugariaren arbaso-izaera duten pertsonen lanbide arteko gutxieneko soldataren 3,5 arteko oinarri ezargarria dutenean PFEZ-n (14 ordainketa) (familia ugariak babesteko 40/2003 Legearen 2. artikulua arabera)	90%
Familia ugariaren arbaso-izaera duten pertsonen lanbide arteko gutxieneko soldataren 4,5 arteko oinarri ezargarria dutenean PFEZ-n (14 ordainketa) (familia ugariak babesteko 40/2003 Legearen 2. artikulua arabera)	60%
Gainerakoak, lanbide arteko gutxieneko soldataren 4,5 arteko oinarri ezargarria dutenean PFEZ-n (14 ordainketa) (familia ugariak babesteko 40/2003 Legearen 2. artikulua arabera)	30%
Orokorra	
Familia ugariaren arbaso-izaera duten pertsonen lanbide arteko gutxieneko soldataren 3,5 arteko oinarri ezargarria dutenean PFEZ-n (14 ordainketa) (familia ugariak babesteko 40/2003 Legearen 2. artikulua arabera)	60%
Familia ugariaren arbaso-izaera duten pertsonen lanbide arteko gutxieneko soldataren 4,5 arteko oinarri ezargarria dutenean PFEZ-n (14 ordainketa) (familia ugariak babesteko 40/2003 Legearen 2. artikulua arabera)	40%
Gainerakoa, lanbide arteko gutxieneko soldataren 4,5 arteko oinarri ezargarria dutenean PFEZ-n (14 ordainketa) (familia ugariak babesteko 40/2003 Legearen 2. artikulua arabera)	20%

2. Familia bereko kideek, tarifyan honako bonifikazio hauek izango dituzte:

- a) kideak %50eko bonifikazioa.
- b) kideak %75eko bonifikazioa.
- c) kideak %100eko bonifikazioa.



3. Hobariak langabetuentzat.

Laguntza hau eskuratu ahal izateko, ikaslearen familia unitatearen diru sarrerak hartuko dira kontuan. Familia unitatearen sarrerak/hileko, ezin izango du Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata 2,5ean gailendu.

- Langabezian... %60ko dirulaguntza.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenek.. %70eko dirulaguntza.

Dirulaguntza eskuratu ahal izateko, ikasturte hasieran ikasleak aurreko urteko errenta aitorpena jasotzen duen agiria aurkeztu beharko du eta amaieran ikasturtea hasi den urteko errenta aitorpenaren agiria ere eskatuko zaio.

Edozein jabek langabezia uzten badu Segurantzak Sozialek o edozein erregimen batean alta hartzeagatik, hurrengo hiru hileko onura fiskalaren baliogabetzea ekarriko du (Hiruhilekoaren hasieran). Subjektu pasiboa behartuta dago honen berri ematera, eta administrazioak bultzaturiko egiaztapen baten ondorioz betebeharrak hori bete ez dela eta onura legez kanpo gozatu dela frogatzen bada, hobaria erruz aplikatutako diru kopuruen itzultzea eskatuko da.

4. Bonifikazioak ezin dira metatu. Ondorioz, ofizios, herritarrentzat onena den bonifikazioa aplikatuko da.

ANEXO DE TARIFAS

Precio hora/clase presencial: **1,16 €**


Precio hora/Autoaprendizaje: **1,42 €**

Bonificaciones

0. Tendrán derecho a las bonificaciones de este precio público los/as empadronados/as en Durango y los/as empadronados/as en los ayuntamientos convenidos (Abadiño y Iurreta).
1. Los alumnos/as miembros de familia numerosa tendrán derecho a las bonificaciones que figuran en la siguiente tabla:

Tabla de bonificaciones:

Tipo de familia numerosa	% de bonificación
Especial	
